AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2147

105/2013 EBAZPENA, apirilaren 11koa, Bizkaiko Barrualdeko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, Ana María Iruarrizaga Díez andreari Barrualdeko Eskualdeko Laudioko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak esleitzeko dena.

Barrualdeko Eskualdeko zuzendari gerentearen otsailaren 27ko 57/2013 Ebazpenaren bidez, onarpena eman zitzaion Bizkaiko Osasun Barrutiko Barrualdeko Eskualdeko Laudioko Lehen Mailako Atentzioko unitate-burua izendatzeko deialdiari.

Aurkeztutako eskabidea eta alegatutako merituak egiaztatzeko agiriak azterturik, eta indarrean dagoen legeriaren arabera Zuzendaritza-Gerentzia honek dituen eskumenez baliaturik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ana María Iruarrizaga Díez andreari Bizkaiko Osasun Barrutiko Barrualdeko Eskualdeko Laudioko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak esleitzea.

Bigarrena.– Ana María Iruarrizaga Díez andreak kudeaketa- eta asistentzia-lanak egingo ditu, Osasun Eskualdeko gerentearen menpe zuzen-zuzenean. Bai Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak garatu bitartean bai hauek amaitzean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta honi lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, Ana María Iruarrizaga Díez andreak ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta horren zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean zehazten dira.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amorebieta-Etxano, 2013ko apirilaren 11.

Barrualdeko Eskualdeko zuzendari-gerentea,
ENRIQUE MAIZ OLAZABALAGA.